

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4053

AGINDUA, 2023ko uztailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2023an Irale programan irakasle liberatuak dituzten itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza deialdia iragartzen duena.

Hezkuntza Sailburuordetzak 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako aginduak argitaratuak ditu formatu elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara/>), eta, han, aukera ematen zaie ikastetxe pribatuetako irakasleei irakastordu barneko ikastaroetan parte hartzeko.

Horregatik, kontuan hartu dira honako lege eta dekretu hauek: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan dirulaguntzak emateko moduari buruzkoak; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta lege hori garatzen duen eta dirulaguntzei aplikatzen zaizkien gainerako xedapenak; era berean, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideei jarraikiz. Hori guztia kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

Agindu honen xedea da itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia egitea eta deialdia arautzeko oinarriak ezartzea, 2023an Irale Programako ikastaroetan, eskola-ordutegiaren barruan, aritutako irakasleen ordezkatzeko eragindako gastuak diruz laguntzeko.

Dirulaguntzen deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago; zehazki, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren 4715 programan, irakasleak euskaraz prestatzeko helburu estrategikoarekin.

2. artikulua.– Diruz lagundutako jarduera.

1.– Aurreko artikuluan aipatzen diren ikastaroak U2, U3, 3000, 4000, 5000, R300, R400, R600 eta R900 ikastaroak dira, honako bi agindu hauen bidez deituak: Agindua, 2023ko apirilaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deitzen baitira Irale programaren 2023ko udako eta 2023-2024 ikasturteko ikastaroak, eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen baita (2023ko apirilaren 18ko EHAA); eta: Agindua, 2022ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deitzen baitira Irale programaren 2022ko udako eta 2022-2023 ikasturteko ikastaroak, eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen baita (2022ko apirilaren 22ko EHAA).

2.– Dirulaguntzaren xede den jarduera da 2023an ikastaro horiek egingo dituzten irakasleen lanaldi-liberazioa, betiere liberazio horrek haien ordezkapena kontratatzea badakar.

3.– Ondorio horietarako, liberaziotzat hartuko da ikastaroa egiten den hilabeteetan lanik ez egi-
tea, lan-eskubideak murriztu gabe, soldata barne; eta ikastaroa egitetzat hartuko da ikastaroaren deialdian ezarritako baldintzak betetzea.

4.– Ordezkapena, ordezeko irakasleei dagokienez, 6. artikuluan ezarritakora egokituko da.

3. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

1.– Dirulaguntzak emateko 1.433.000,00 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorren kontura.

4. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Dirulaguntzaren zenbatekoa hurrengo taulan finkatutako zenbatekoen arabera kalkulatu da, ordezkapen-aldiaren eta emandako irakasmilaren arabera. Honako arau hauek aplikatuko dira:

a) % 100ari dagokion zutabeak erreferentziazko gehieneko zenbatekoak finkatzen ditu.

b) Taulako zenbatekoak irakasleko eta liberazio-aldi bakoitzerako zenbateko oso bezala finkatu dira.

c) Zenbatekoa aldi osorako gehienekoa da; liberazioa edo ordezkapena aldi osoa baino txikia goa bada, dagokion zenbateko proportzionala aplikatuko da.

d) Zenbatekoak lanaldi osoan ordezkatutako irakasle baten kasurako finkatuta daude. Ordezkatutako irakasleak lanaldi partziala badu, kalkulua dagokion proportzioan egingo da.

e) Dirulaguntzan ez dira sartzen ordezkatutako irakaslearen Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak.

Kontratua noiztik noiz arte den	Irakasmila	Dirulaguntza eurotan (% 100)
2023-01-09tik 2023-06-06ra arte (sei hilabete)	Lehen Hezkuntza	24.409,92
	DBHko 1. zikloa	25.929,59
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	28.064,93
2023-01-09tik 2023-03-31ra arte (hiru hilabete)	Lehen Hezkuntza	12.204,96
	DBHko 1. zikloa	12.964,79
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	14.032,46
2023-09-07tik 2023-12-22ra arte (lau hilabete)	Lehen Hezkuntza	16.273,29
	DBHko 1. zikloa	17.286,39
	DBHko 2. zikloa+Batx+LH	18.709,95

2.– Aurreko taulan zehaztutako zenbatekoen % 100 ordainduta, dirulaguntza hauetarako aurrekontua gaitutako balitz, eskabide bakoitzari esleituko zaion ehunekoa gutxituko da aurrekontura egokitzeko beharrezkoa den kopuruan.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak, baldintzak eta horien egiaztapena.

1.– Deialdi honetan parte hartu eta dirulaguntza jaso ahal izango dute hezkuntza-ituna duten ikastetxeen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta aldi berean jarraian adierazitako baldintza espezifiko eta orokorrak betetzen badituzte.

2.– Honako berariazko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 1. artikuluan aurreikusitako ikastaroa egiteko aldiaren hezkuntza-ituna izatea, ikasturtean onartutako irakasleek emandako irakasmila eta irakaskuntzetarako.

b) Ikastaroan onartutako irakasleak beren lanalditik liberatu izana.

c) Onartutako irakasleen ordezkapen osoa kontratatuta izatea, lan-kategoria eta irakaskuntza-esleipen bereko irakasleekin.

3.– Erakunde eskatzaileek eta onuradunek dirulaguntzen arloari dagozkien honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betebehar horien ordainketan egunean daudela ulertuko da zorrak geroratuta edo zatikatuta daudenean eta geroratzearen edo zatikatzearen ondoriozko obligazioetan egunean daudenean.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik sortutakoak barne.

c) Berdintasun-plana indarrean izatea, erakundea horretara behartuta badago, Estatuaren araudiaren arabera.

d) 50 langile baino gehiago dituzten erakundeek kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako gainerako baldintzak.

4.– Nolanahi ere, dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura oro.

5.– Deialdia kudeatzen duen zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko du aurreko 2. apartatuko a) letran jasotako baldintza espezifikoak eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko baldintza orokorrak betetzen direla, salbu eta erakundeak horretarako baimenik ematen ez badu; kasu horretan, organo eskudunek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen dutenak.

6.– Aurreko 2. apartatuko b) eta c) letretan jasotako betekizun espezifikoak betetzen direla honela egiaztatuko da:

a) Deialdi honetan eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bukatuta dauden liberazioak eta ordezkapenak eskabidearekin batera egiaztatuko dira, ordezkoaren kontratuaren kopia erantsita.

b) Deialdi honetan eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bukatu ez diren liberazioak eta ordezkapenak 14. artikuluan xedatutako moduan egiaztatuko dira.

7.– Aurreko 3. apartatuko b), c), d) eta e) letretan jasotako betekizun orokorrak eskabide-inprimakian jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira.

6. artikulua.– Ordezko irakasleak.

Ordezko irakasleak kontratatzeko, arau hauek bete beharko dira:

a) Kontratazioa legeria eta hitzarmen kolektibo aplikagarriaren arabera izango da.

b) Ordezko irakasleek irakaskuntzak emateko baldintzak bete behar dituzte, eta ordezkaturako irakasleen lan-kategoria eta irakaskuntza-esleipen berarekin arituko dira.

c) Irakasle liberatu bakoitzaren ordezkapena irakasle batekin edo batzuekin egin ahal izango da, baina ordezkapenaren indarraldia ez da ikastaroa egiteko aldia baino luzeagoa izango eta, ondorioz, ezta liberazio-aldia baino luzeagoa ere.

d) Ordezkapena bitarteko kontratu bidez egingo da, erlijioako irakasleak ordezkatzeko edo ondorengo kasu hauetarako izan ezik, kasu horietan ordezkapena plantillako langile mugagabeekin egin ahal izango baita:

– Ordezkapenari dagokion ikasturtean ikastetxeko gela-kopurua murriztu denean aurreko ikasturtearekiko, baina irakasle kopurua mantenduta.

– Ikastetxeak, ordezkapena egiteko, ikastetxeko irakasleen lanaldi partziala handiagotzen duenean.

7. artikulua.– Deialdiaren instrukzio-organoa eta dirulaguntzen kudeatzailea.

Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokio deialdi hau bideratzea eta emandako dirulaguntzak kudeatzea.

8. artikulua.– Eskaerak aurkeztea eta baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

1.– Eskabidea ikastetxeko pertsona fisiko edo juridiko titularrak aurkeztuko du, elektronikoki, 15 egun balioduneko epean, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabidea egiteko informazioa eta ondorengo izapideetarako sarbidea eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan. Administrazio-prozeduraren informazio-fitxan, izapideak egiteko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta, horren bidez, eskabide-inprimakian sartzeko aukera dago, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2023/irale-pribatuak/web01-tramite/eu>

Eskabide bakarra beteko da ikastetxeko titular bakoitzeko, eta bertan ikastetxean ordezkapenaren xede diren irakasleak eta horien ordezkari irakasleak zerrendatuko dira.

3.– Kudeaketa-zuzendaritzak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak eskuratzearen aurka eginez gero eskabidean, betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak erantsi beharko dira.

4.– Eskabidearekin batera, 5. artikuluko 6. apartatuan jasotako egiaztagirak aurkeztuko dira.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatuz, eskabideak erantzukizunpeko adierazpen bat jasotzen du, honako betebeharrak hauek egiaztatzeko:

a) Edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, hala bada, dagokio, jaso direla jakinaraztea, eta, hala bada, laguntza eman duen erakundearen zenbatekoa eta izena adieraztea.

b) Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik ez izatea, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexu-bereizkeriagatik debekuak berariaz aipatuta.

c) Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta dirulaguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

d) Berdintasun-plana indarrean duela, erakundea horretara behartuta badago, Estatuaren araudiaren arabera.

e) 50 langile baino gehiago dituzten erakundeen kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri dituela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

f) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako ezein egoeratan ez dagoela.

6.– Eskabidearen ondorengo izapideak (sarbidea, izapidetzea eta jarraipena) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta»-ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Eskabidea elektronikoki ere izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

9. artikulua.– Eskabidea zuzentzea.

1.– Eskabidea ez bada osorik bete edo eskatutako dokumentazioaren bat ez badago erantsita, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aldez aurretik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2.– Errekerimendua elektronikoki jakinaraziko da, eskatzailearen «Nire karpeta» atalaren bidez. Zuzendaritza kudeatzaileak jakinarazpenaren abisuak bidali ahal izango ditu eskabidean horretarako adierazitako posta edo gailu elektronikora, baina jakinarazpen horrek ez du jakinarazpen-ondoriorik izango.

10. artikulua.– Behin-behineko ebazpena.

1.– Zuzendaritza instrukzio-egileak behin-behineko ebazpena onartuko du. Ebazpen hori elektronikoki jakinaraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuta, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa> eta hamar egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoa igorri, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorreko zenbakietara eta helbide elektronikotara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenerako baliorik izango.

2.– Behin-behineko ebazpenean honako hauek bereiziko dira:

a) Baldintzak ez betetzeagatik onartu ez diren eskaerak. Ondorio horietarako, eskatutako ordezkapenen zati bati edo guztiei buruzkoa izan daiteke ez onartzea, eta ebazpenean adieraziko da bete ez den betekizuna.

b) Emandako dirulaguntzak, baldintzak betetzen dituztenen artean. Emandakoetan irakasle ordezkaria eta ordezkaria edo ordezkariak adieraziko dira, bai eta emandako zenbatekoa ere.

11. artikulua.– Prozeduraren ebazpena.

1.– Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari dagokio prozedura ebaztea, ez onartzeko, emateko eta ukatzeko ebazpenen bidez. Ebazpen horietan, zuzendaritza instrukzio-egileak onartutako behin betiko ebazpena jasoko da.

2.– Prozeduraren ebazpena honako egutegi honen arabera izango da:

a) 2023ko urriaren 31 baino lehen, 2023ko urtarriletik ekainera bitarteko liberazioen ordezkariak dagozkien dirulaguntzak.

b) 2023ko abenduaren 31 baino lehen, 2023ko irailetik abendura bitarteko liberazioei dagozkien ordezkariak dagozkien dirulaguntzak.

3.– Ebazpen horiek elektronikoki jakinaraziko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuta, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>, eta, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoak igorri, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorreko zenbakietara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenerako baliorik izango.

4.– Gardentasunaren ondorioetarako, emandako dirulaguntzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

12. artikulua.– Dirulaguntza jaso duten erakundeen betebeharrak.

Hauek dira dirulaguntzen erakunde onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta 15 eguneko epean idatziz uko egiten ez bazaio, onartu egin dela ulertuko da.

b) Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.

c) Deialdi honetan irakasleak liberatzeari eta ordezkari buruz ezarritakoa betetzea, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartu diren gainerako baldintzak ere.

d) Jarduera eta gastua bete direla justifikatzea, 14. artikuluan adierazitakoaren arabera.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazio guztia ematea.

f) Xede berbera duten bestelako dirulaguntzak edo laguntzak, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotakoak, jakinaraztea.

g) Oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako eman ditzakeen beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin, betiere gainfinan-

tzaketarik gertatzen ez bada. Kasu horretan, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla jakinarazi beharko da. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

14. artikulua.– Diruz lagundutako jarduera bete izanaren eta egindako gastuaren justifikazioa.

Jarduera bete izanaren eta egindako gastuaren justifikazioa honela egingo da:

a) 2023ko urtarriletik ekainera bitarteko liberazioen gastuari dagozkion ordezkapenentarako, dirulaguntza-eskaerari ordezeko irakaslearen kontratuaren kopia erantsita.

b) 2023ko irailetik abendura bitarteko liberazioen gastuari dagozkion ordezkapenentarako, ordezeko irakaslearen kontratuaren kopia aurkeztuz, ikasturtea hasi eta 15 egun balioduneko epean.

15. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Ordezkatutako irakaslearen liberazio-aldia amaitu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak, betiere ordezkapena eta gastua aurreko artikuluan adierazitako moduan justifikatu badira.

16. artikulua.– Laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –besteak beste, ordezkatu-tako irakasleen Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak eta ezarritako mugak urratuz beste laguntza edo dirulaguntza batzuk aldi berean lortzea–, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

17. artikulua.– Ez betetzea, ordaintzeko eskubidea galtzea eta itzultzea.

1.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, aitortzeko prozedura egin ondoren, galdu egingo da emandako dirulaguntza ordaintzeko eta ordaindutakoa itzultzeko eskubidea, bai eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak ere. Horretarako, Hezkuntza Sailak dagozkion egiazta-penak egiteko ahalmena izango du.

2.– Ordainketarako eskubidea galdu dela edo ordaindutakoa itzuli behar dela deklaratzeko denean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautzen du, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen ditu.

18. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatze laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Ikaskuntza eta Hezkuntzaren Berriztatzea finantzatzea eta laguntzea.

Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak:

Ekonomia eta Ogasun Saila, ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Aurkaratzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

ERANSKINA
ESKABIDE ELEKTRONIKOA
IRALE DIRULAGUNTZAK

Organo izapidegile honi zuzendua:

Erakundea: Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza

Organo izapidegilea: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	Gizona Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	Gizona Emakumea		

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Horra sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

Kanal elektronikoa buruzko oharra: jakinarazpen elektronikora sartzeko ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jarri eta 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioen bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu helbide elektronikora eta telefono mugikorrera.

Helbide elektronikoa	
Berretsi helbide elektronikoa	
Telefono mugikorra	

Komunikaziorako hizkuntza

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zeuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

Euskara Gaztelania

Datu orokorrak

Zein lurraldetan / probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak?

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

1. Ez du jasotzen helburu bera duen laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
2. Jasotzen ari da helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batetik (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dira).
3. Eskatu du helburu bera duen laguntza edo dirulaguntza administrazio publiko edo erakunde pribaturen batean, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu beharko dira).

Erakunde eskatzaileari buruzko adierazpen hauek aitortzen ditut:

4. Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
5. Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
6. Berdintasun-plana indarrean izatea, erakundea horretara behartuta badago, Estatuaren araudiaren arabera.
7. 50 langile baino gehiago dituzten erakundeen kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.
8. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako gainerako baldintzak.
9. Betetzen ditu indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak.
10. Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudana dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua). *

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berriztatzeako laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berriztatzearen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Ikaskuntza eta Hezkuntzaren Berriztatzea finantzatzea eta laguntzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Ekonomia eta Ogasun Saila. ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarri jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua (www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Ofizioz egiaztatzea

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (Euskadiko eta Nafarroako Foru Ogasunak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia).
- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).

Interesdunak, modu arrazoituan, aurka egiten dionean izan ezik. Aurka egiteko eskubidea baliatzea.

Ondorengo dokumentuak kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz eman zen	Zein organotan eman zen

Honako honek sinatu du elektronikoki:

--